JUAN CALZADA KALEA

B2

B3

B4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa): Juan Calzada eta Adolfo Uriosteren izenak bata besteagaz lotu-lotuta dagoz. Gizon ongile bi honeei esker egin zan Kaltzada Erresidentzia.

Juan Joaquin Calzada y Echaniz Ajangizen jaio zan 1829an eta San Frantziskon (Kalifornia) hil zan 59 urte ebazala, 1888ko zemendiaren 12an. Merkataritza-itsasontzietako kapitaina zan. Ameriketara eginiko bidaia baten bertan geratzea erabagi eban eta merkataritzari ekin eutsan. Txilen dirutza handiak egin ebazan, baita Espainiaren kontrako independentzia gerran danak galdu be.

Handik Sonsonatera (El Salvador) joan zan eta bertan ezagutu eban bere herri berekoa zan Adolfo Urioste. Horren laguntzagaz hasi zan kafearen negozioetan eta barriro dirua irabazten.

Behin, Kaliforniako San Frantziskora joan jakon Adolfo Urioste bisitan eta bertan zala gaixotu eta hil zan. Gaixoaldian testamentua egin eban Adolfo Urioste lagunaren alde eta honek zera agindu eutsan: testamentuan hartutako diru guztia onegite lanetan erabiliko ebala. Halan, bien artean erabagi eben Gernika-Lumon ospitale bat eregitea.

Muga geografikoak

Iparraldetik Eriabarrena kalea eta hegoaldetik Bilborako kaminoa.

Ezaugarri historikoak

Kale hau luzatzen joan da herria hegoaldera zabaldu dan neurrian, beti Bilborako kaminoa ardatz izanik. Hasiera baten kale hau "Durangorako bidea" izenagaz ezagutzen zan.

Erdi Aroan eta Gernika-Lumoren batasunera arte, garrantzi handia euki eban kale horretan egoan "Eria" (El Ferial) izeneko zelaiguneak, bertan antolatzen ziran eta feriak edo azokak. Azoka horreek Gernikako uribildutik urten eta urian sartzeko Artekaleko "El Ferial" izeneko atearen aurrean egiten ziran.

1792an, Juntetxerako harmailen aurrez-aurre, Jaurrerriko kartzela barria eregi zan eta 1888an "Asilo-Hospital Calzada" Saraspe ondoko orubean. Ospitaletik hur "El caserio del Pino" egoan bere iturri famatu eta guzti.

Kale horren lehenengo izena "Asilo Calzada" izan zan. 70eko hamarkadan "Señorio de Vizcaya" izena ipini eutsien eta, ospitalearen ehungarren urteurrena betekeran, gaur egun daukan "Juan Calzada" izena ipini jakon.

Kale horren inguruan hiru plaza dagoz: Saraspe plaza, uritik hurren, Agirre plaza eta San Kristobal plaza, azkeneko hau Gernika-Lumoko urteerako errotondan. Saraspe toponimoa Lumoko udalerriko lurraldeetan agiri da Erdi Arotik. Bertan egoan Saraspeko taberna. Agirre plazeak antxina inguru horretan egoan Agirre baserritik hartu dau izena. Baserri hori 1704ko fogerazinoaren ostean agertzen jaku zerrendetan. San Kristobal plazeak gerra aurretik bertan egoan txalet batek eukan deun horren iruditik hartu dau izena. Plaza hau lauki itxi bat da eta etxebizitzez inguraturik dago.

Edifizio aitagarriak

Kaltzada Egoitza: "Establecimiento Católico de Beneficiencia Particular" izenaz eratu zan etxe hau Juan Calzada eta Adolfo Uriosteri esker: "Para que sean asistidos los pobres de ambos sexos de la villa". Isabel Allendesalazar gernikarragaz ezkonduta egoan Luis Landecho y Urries izan zan arkitektoa.

"Casas del Estado": Estatuak eregi ebazan (1945) bonbardaketaren ondorioz etxe barik geratu ziran familientzat.

Osasun Zentroa: "Regiones Devastadas" erakundeak egin eban osasun zentro moduan erabilteko. Gaur egun Gurutze Gorria dago bertan.

KALEKOTXU

B5

Izenaren jatorria

Kale honen iparraldeko ertzean dagoan "Kaleko" baserritik hartu dau izena.

Muga geografikoak

Hegoaldetik Errekazarra kaleak egiten deutso mugea eta iparraldetik San Bartolome kaleak.

Ezaugarri historikoak

Kale barria dan ezkero, ez dauka aparteko edifiziorik edo ezaugarri arkitektoniko berezirik, ezta gertaera historikorik be. Halanda ze, aprobetxau egingo dogu tarte hau Gernika-Lumo eta Ajangizen arteko gorabeherak, udalerri bien banaketa eta udal-lurren zatiketak aztertzeko. Liskar horretan, betirik Ajangizko auzorik handiena izan dan Errenteriako auzoa izan da gehienetan protagonistea. Gainera, Arratzu eta Gernika beti ibili izan dira Ajangizko ledania eurena egin guran.

Gerra Zibila frankisten garaipenagaz amaitu eta jarraian, Ajangizko udalerria Gernika-Lumon sartzeko aldeko kanpaina martxan ipini zan. 1937an Gernika-Lumoko Udalak Gobernu Zibilean artean eta antxinatik Ajangizkoak ziran urriko astelehenetako feriak berarentzat aldarrikatu ebazan. Feriok Errenteriako Maloste inguruan ospatzen ziran. Gernika-Lumoren ahaleginak ez ziran izan behar bestekoak antza, Gobernu Zibilaren erabagia Ajangizkoen aldekoa izan zan-eta. Baina gernika-lumotarren ekimenak eta presino politikoak gero eta handiagoak izan ziran eta azkenean Frankoren gobernuak, dekretuz, 1942an Ajangiz eta Errenteria Gernika-Lumoko udalerrian sartzeko erabagia hartu eban.

B4

KARMELO ETXEGARAI KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):
1865eko garagarrilaren 3an jaio zan Azpeitian. Gernikan bizi izan zan. Kronikari, liburuzain eta artxibozain egin eban behar 1896tik 1925eko zemendiaren 4an hil zan arte.

Muga geografikoak

Hegoaldetik Saraspe plazeak egiten deutso mugea eta iparraldetik Allendesalazar kaleak.

Ezaugarri historikoak

1965ean, Karmelo Etxegarairen jaiotzaren urteurrena ospatzeko, artean Allendesalazar izena eukan kalearen zati bati izen barri hau ipini eutsien. Halan, Karmelo Etxegaraik Saraspe plazan eukan etxetik Juntetxeraino beharrera joateko egiten eban eguneroko ibilbidea gogoratu gura izan eben orduko udal arduradunek.

Edifizio aitagarriak

Batzar Etxea/Juntetxea: Gernikako Arbolaren inguruan eregia, estilo neoklasikoko XIX. mendeko edifizioa da eta bertan egiten dira Bizkaiko Batzar Nagusiak. Proiektuan edifizioak hiru atal eukazan: erdikoa, Antiguako Andra Mari baseleizearen ondorengo tenplu barri bat; alde bietara eta simetrikoak, aretoak. Baina Karlistadak izan ziran eta eregintza beharrak ez ziran amaitu; ondorioz, iparraldeko aldea ez zan egin.

Unzeta Jauregia: agirian dauka oraingoz Unceta-Azpiri familiaren armarria. Gaur egun bertan dagoz Segundo Olaeta Udal Musika Eskolea eta Gaztelekua.

KORTEZUBI BIDEA

C6

Izenaren jatorria

Kortezubirako bidea.

Muga geografikoak

Hegoaldetik San Bartolome eta iparraldetik BI-638 kamino komarkala daukaz.

Ezaugarri historikoak

1835ean gara eta karlista eta liberalen arteko gerreak herria zatituta dauka. Iriarte jeneral liberala Lekeitiotik dator hiru mila gizonegaz Sarasa jeneral karlistearen gudarosteak okupaturik daukan Gernika hartzeko asmoz.

Iriarte Kortezubiko bidetik dator. Tabernabarriko zubia igaroten dabenerako hasten da erasoa. Liberalek Errenterian karlistek jarritako defentsa aurreratuak apurtu, zubia astrapalan pasau eta Gernikako kaleetan sartzen dira. Baina hemen karlistek eutsi, erasoa gelditu eta liberalak barriro Errenteriaraino sakatzen dabez.

Gaua gainean da. Orduan Iriartek hil ala bizi burrukatzea erabagiten dau. Bere gudari-talde guztia batu, berba sutsuakaz berotu eta Gernika hartzen bialtzen dauz. Hainbeste hildakoren gorputzen gainetik Errenteriako zubia barriro pasau eta urian sartzen dira. Udaletxeko plazaraino heltzea lortzen dabe baztarrak hildakoz beterik itxita; baina hor karlistek gogor erantzuten deutsee: baionetakaz eraso ikaragarria egin eta atzera egin beharrean jarten dabez liberalak, Errenteriarantz erretirau beharrean.

Berrehun bat gudari liberalek Mertzedeko komentuan batzea lortzen dabe. Laguntza barik eta karlistez inguratuta, etsipenezko egoera horretatik urteteko bide bakarra komentuko monjak babes moduan erabiltea da.

Karlistek liberalek amore emotea gura dabe, baina ez dabe erantzunik lortzen. Monjak libre ixteko agintzen dabe, baina ez dago erantzunik. Orduan karlistek komentuari eraso eta erre egiten dabe, baina ateak erre arren, hormek sendo irauten dabe. Koru parean zulo bat egin, errekinak metatu eta keak urten eragingo deutselakoan, kainoi eta guzti ahalegintzen dira. Baina horretan dabilzala, barrukoentzako unerik larrienean, Espartero jenerala agertzen da inguratuta dagoan taldea salbetan.

Esparterok, harantza doala jakin dagien eta setiatuak animau daitezan, Marmizeko bidetik Errenteriarantz hiru kainoi-tiro egiten dauz. Karlistek, liberal gehiago datozala ikusirik, alde egiten dabe arrapaladan, batzuek Arratiarako bidetik eta gipuzkoarrek Munitibarrekotik.

Burrukaren ondorioz Madalena baseleizea eta Errenteriako etxerik gehienak hondatuta gelditzen dira, Urrengoerrota betiko itxita eta, okerragoa dana, baztarrak hildakoz eta zauritutakoz beteta, alde bateko zein besteko gudariz eta errenteriarrez beteta.

B4

LOIZAGA KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Loizaga familia aintza handikoa izan da betirik Gernika-Lumon. Antonio Joaquin de Loizaga 1768an Antiguako Andra Mari baseleizan egin ziran beharren arduraduna izan zan. Jose Joaquin de Loizaga diputadu nagusiak 1790ean baseleiza berean zein bertako artxiboan erretaula barria eta beste behar batzuk egiteko ideia aurrera eroan eban. Napoleonen gudarosteen inbasinoaren ondoren, Jose Joaquin de Loizagari eta Artxibategiko idazkariari emon jaken frantsesek eragindako kalteak konpontzeko agindua. Horren semea izan zan Casimiro Loizaga (1782-1841) frantsesen kontrako Independentzi Gerran nabarmendu zan. Gero hainbat kargu bete ebazan Estatuko administrazinoan: Agentea Bizkaiko Kortean (1816-1818) eta Diputadu Madrileko Korteetan (1821). Casimiroren semea, Timoteo Loizaga (1820-1892), Bilbon jaio zan eta hasiera baten karlista zalea izan bazan be, gerora liberal moderatuen taldeko bihurtu zan. Bizkaiko Diputadu Nagusia izan zan (1848-1850; 1856-1858) eta Bizkaiko mapa topografiko bat egin eban. 1892ko urtarrilaren 8an hil zan.

Muga goegrafikoak

Hegoaldean Iparragirre kalea eta iparralderantza Geltoki plaza.

Ezaugarri historikoak

1937ra arte, Loizagak, Iparragirrek eta Geltoki plazak bat egiten eben lekuan "Lavadero" deitzen zan kale bat egoan. Lezeagatik etorren errekastoaren ura garbiketarako erabilten zan eta hortik jatorko izena.

Edifizio aitagarriak

Gernika-Lumoko Tren Geltokia: 1890ean eratu zan, trena 1888tik martxan egon arren. Edifizioa bardin gorde da egin zanetik. Gernika-Lumotik Amorebietarako trenbidea egitea pentsau zan 1884an eta beharrak hurrengo urtean hasi ziran. Gernika-Lumo Bilbogaz eta Durangogaz lotuko eban trenbide hori 1888an inaugurau zan. 1891n Gernika-Lumotik Sukarrietarainoko trenbidea egiteko baimena eskuratu eta 1892an inaugurau zan.